



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 1a

42. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, Nafarroako abeltzaintzako sektorerako garatu beharreko politikari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete egin dezan Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren 1/2021 Agindu Zirkularra, 2+1 errepideak eta aurreratzeko errei gehigarriak diseinatzeko gomendioei buruzkoa, haren 2.4 apartatuan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzea. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak betearaz ditzan Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integral bat garatu eta abiarazte aldera. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu dezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan. Navarra Suma, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa izateko. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira oposizio eta oposizio-lehiaketa guztietan zehaztua egon dadin azterketen zailtasun gradua, Testen teoria klasikoaren edo/eta Itemari erantzuteko teoriaren bidez, erabili aurretik; eta langileen ordezkariekin negoziatzea dezan Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sarbide-probak aldatzea eta eguneratzea. Osasun Batzordeakonetsia (11. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, gazteentzako kultur bonoaren onuradun izanen diren gazteen kopuruari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuan garatzeko dauden araei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenean Defentsaren gastuek BPGaren % 2ra igotzeak izan dezakeen eraginari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, eskola aseguruak tratamendu neuropsikiatrikoak eta psikologikoak estaltzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan medikuak kontratatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Reina Sofia ospitaleko zerbitzuen zorroan sartu diren prestazio berriei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Tuterako osasun Barrutiko Dermatologia kanpora ateratzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Tuterako Barrutiko Erradiodiagnostikoko mediku espezialisten lanpostuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Reina sofia Ospitaleko ZIUko erizaintzako burua kargua uzteko eskariari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordearen eratze formalari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Ingeniarien Elkargoari Esako presaren segurtasunari buruzko irizpen bat enkargatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).

**I SAILA:****Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak ezetsi du (22. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, Nafarroako abeltzaintzako sektorerako garatu beharreko politikei buruzkoa.**

### *MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako abeltzaintzako sektorerako garatu beharreko politikei buruzkoa (10-22/ITP-00010).

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Abeltzaintza da intsumoen eta energiaren prezioen gorakada gehien pairatzen ari den sektoreetako bat. Horren ondorioz, egoera jasanezin bihurtzen ari da, abeltzaintzako zenbait ustiategi ixteko arriskuan baitaude, eta hori galarazi behar dugu.

Hori dela-eta, interpelazio hau aurkeztu dut:

Interpelazioa, Nafarroako abeltzaintzako sektorerako garatu beharreko politikei buruzkoa.

Iruñean, 2022ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete egin dezan Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren 1/2021 Agindu Zirkularra, 2+1 errepedeak eta aurreratzeko errei gehigarriak diseinatzeko gomendioei buruzkoa, haren 2.4 apartatuan.**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete egin dezan Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren 1/2021 Agindu Zirkularra, 2+1 errepedeak eta aurreratzeko errei gehigarriak diseinatzeko gomendioei buruzkoa, haren 2.4 apartatuan (10-22/MOC-00032).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatzeko:

N-121-A errepedea Nafarroako lurralde kohesiorako azpiegitura den aldetik, behartuta gaude erabaki koherenteak hartzera oraintsueneko aurreikuspenei egokituak eta mota horretako azpiegituren gaineko araudi berriena betetzera.

Errepide hori berdimentsionatzeko garatzen ari den jarduketa behartuta dago legezko araudia betetzera, bai eta arau izaerako edozein gomendio ere, halako moduz non azkenean bermatuko den segurtasun eta egokitasun mailako arauak betetzen direla, gaurko trafikoak eta aurreikus daitkeenak horretara behartzen gaituztelako.

2021eko martxoaren 18an argitara eman zen Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren 1/2021 Agindu Zirkularra, 2+1 errepedeak eta aurreratzeko errei gehigarriak diseinatzeko gomendioei buruzkoa.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bete egin dezan Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren 1/2021 Agindu Zirkularra, 2+1 errepedeak eta aurreratzeko errei gehigarriak diseinatzeko gomendioei buruzkoa, haren 2.4 apartatuan.

Nafarroan, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzen.**

### **MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzen (10-22/MOC-00033).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua arabera espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute, eta botere publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin. Halaber, gure Konstituzioak pertsona guztien duintasuna aitortzen du. Espainiako Konstituzioak berak dei egiten digu erantzuna ematera Nafarroan kalean bizi ohi diren 80tik gora pertsonen eta une batzuetan egoera horretan dauden 150etik gorakoei.

Pandemiak aurrekaririk gabeko krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa eragin du, gizarte oso larriki ukitu duena, baina azpimarratu nahi dugu etxerik gabekoen egoera zaurgarri berezia, babeserako estrategia nagusia etxean geratzea izan zenean.

Beharrezkotzat jotzen dugu une honetan indartzea etxegabetasuna desagerraraztera bideratutako ekintzak. Horretarako, neurriak egituratu behar dira gizarteratzean egun arrakasta gehien erakutsi duten metodologian oinarrituta, aukera emanez

pertsona horien muturreko zaurgarritasuna murriztuko duten ibilbideak sortzeko eta pixkanaka aurrerabidea egiteko osasunaren, gizartearen eta enpleguaren aldetik

Etxegabetasuna larrialdia eta eskubide-urraketa da, eta jende asko egoera hori pandemiaren aurretik ere pairatzen zuen. Testuinguru horretan Garapen Jasangarriko Helburuek (GJH) desberdintasunak desagerrarazteko helmuga ezartzen dute; hartara, ezinbestekoa da kokatzea etxegabetasuna pobrezia eta bazterketaren adierazpen goren dela, 2030 Agendaren helburuekin bateraezina. Beraz, arazoaren kudeaketatik harago iristen diren politika publikoak bultzatu behar dira, arazoa desagerrarazteko helburu nagusiarekin.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzen, gaiari helduz faktore ekonomikoak eta kulturak dituen egiturazko arazo gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kooperatzeko eremuak bultzatzen dituzten toki entitateekin eta etxebizitza eta gizarte zerbitzuetako arloetatik, etxegabetasuna desagerrarazteko jardunbide onak trukatzeari eta politika publiko eraginkorrak bultzatzeari begira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan sustatzen neurri gehiago hartzea etxebizitzaren eskaintza areagotzeko, etxegabetasuna desagerraraztera bideratutako toki entitateen programetarako.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu dezan tokiko poliziaren, Forzaingoaren, segurtasuneko indar eta kidegoen eta babes zibilaren prestakuntza, larrialdi egoeran dauden etxebizitzarik gabeko pertsonen arreta emateko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozesuak hobetu eta protokoloak egokitu dituzten etxebizitzarik gabeko pertsonen babes sozialeko sistemara iritsi ahal izan daitezen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak betearaz ditzan Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integral bat garatu eta abiarazte aldera.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren neurriak betearaz ditzan Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integral bat garatu eta abiarazte aldera (10-22/MOC-00034).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Uste denez, ikusmen-patologiaren bat pairatzen duten espainiarrak, gaur egun, milioi bat baino gehiago dira, haietako 8.000 Nafarroako Foru Komunitatean. Baina susmo sendoen arabera badago epidemia handi eta ezkutu bat zahartzearekin eta diagnostiko ezarekin lotua. Horrek kopurua oso gora eramanen luke, gure egitura demografikoagatik.

Parlamentu honetako Osasun Batzordean agerian geratu zen, begi-gaixotasunek ukitutako paziente eta senideen Makula-Erretina elkarteak ekarritako informazioaren bidez, kasu horietako gutxik dute itsutasun legalaren sailkapen administratiboa: Espainian 70.462, Nafarroan 842 baino ez, ONCeren gaurko datuak oinarri.

Bitartean, Desgaitasunaren, Autonomia Pertsonalaren eta Mendekotasun Egoeren gaineko Inkestak ikustarazten Nafarroan 8.000 pertsona inguru daudela ikusmen-urritasunekin, eta 6.300 dira 65 urtetik goitikoak Haietatik, azken estatisti-

ken arabera, desgaitasun-graduren bat aitortuta dutenak 2.898 baino ez dira, eta 161 dira 35 urtetik beheitikoak Halatan, 5.000 mila inguruko nafarren linbo bat dago, arreta behar duten ikusmen-urritasunak dituztenak. Horrek dio diagnostiko eta detekzio goiztiar eza dagoela.

Ukitutako populazio ia guztiak % 80tan ekidin daitezkeen gaixotasunak pairatzen ditu. Horiek horrela, prebentzio-, diagnostiko- eta terapia-jardunaren leihoa guztiz garrantzitsua da. Pertsona horiek osasun laguntza jasotzen dute osasun sistema publikoaren eta itundu gabeko baliabide pribatuen esparruan. Laguntza horren kalitatea aldatzea da, eta estaldura ez nahikoa. Egoera hobetu ezean, kolektibo hori ekitate ezaren eta zaurgarritasun sozialaren arrisku handian geratuko da.

Era berean, osasunaren eta laguntza-prestazioen sistemak gastu jasaingaitzaren gainzama jasan beharko du, langileen beharrianak gero eta handiagoak eta kostu handiko terapiak gero eta ugariagoak izanen direlako.

Halaber, garrantzia eztabaidaezinekoa da COVID-19ak ekarritako krisiak antolakuntzako iriztiak berrikustera behartzen gaituela. Bai eta ikusmen-patologiak ukitutakoendako osasun laguntzaren finantzaziokoak ere. Hori guztia, laguntzaren, ekonomiaren eta gizartearen arloan berreraikuntzako ahaleginak direnean, historia hurbilean ikusi gabeak.

Era horretan, gaur egun hiru elementu biltzen dira, ikusmen-gaixotasunen agertokia definitzen dutenak: aldaketa demografikoarekin lotutako prebalentzia handia, laguntzako erantzun desegokia eta osasun-ereduan funtsezko alderdiak birdiseinatze beharra, COVID-19ak eragindako krisi poliedrikoaren ondorioz.

Horregatik guztiagatik, bi talde parlamentario hauek ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behar diren neurriak betearaz ditzan, gainerako administrazio publikoekin eta gizarte zibilarekin koordinatuta, Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integral bat garatu eta abiarazte aldera, lau estrategiatan oinarrituta: prebentzioa eta arre-

ta goiztiarra, ikerkuntza, jasangarritasun ekonomikoa eta zilegitasun soziala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, plana abian jar dezan lehenetsuna emanez prebentzioari eta arreta goiztiarrari, besteak beste Oinarrizko Osasun Laguntzan eta soziosanitarioan prestakuntzaren eta koordinazioaren bidez espezialitateekiko, eta profesionalendako dotazio eta gaitasun hobearekin, baita diagnostikorako baliabide modernizatuak eta nahikoak ere erabilia. Prebentziorako eta arazoa mugatzeko beharrezkoa da inbertitzea laguntzan edo prestazioetan kostu sozial eta ekonomikoak ekidite aldera eta hobetzea pertsonen autonomia eta bizi-kalitatean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, jarrai dezan estrategiak garatzen osasunaren promozioaren eta kronikotasunari zein diabetesari heltzeko prebentzioaren alde, eta halaber muga eraginkorrak jartzeko ekidin daitekeen itsutasunari, jadanik saihesgarritzat jotzen diren begi-patologiaren ezagutzaren eta prebentzioaren bidez.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahaleginak berrindar ditzan ikerketa zientifikoan eta medikoan eta estrategia bat abian jar dezan, kontuan hartuko dituen azterlan epidemiologikoak, intzidentzia eta prebalentziakoak, ebaluazio ekonomikoak, gaitasunaren zama sozialaren analisi kuantitativoak, pazienteek bizi-kalitatearekin eta autonomia pertsonal eta lanekoarekin dituzten urteak barne, eta finantzaketa ikerkuntza oinarrizkoaren eta traslazioaren lerroetan, aplikazio klinikora bideratuak.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, estrategia bat presta dezan, jasangarritasun ekonomikorakoa, berrikun-

tza diagnostiko eta terapeutikorako sarbidea barne, eta mekanismo modulatuak identifikatzeko, big data zein teknika genomikoak erabiliz tratamenduak pertsonalizatzeko helburuarekin. Horretako beharrezkoa da ere giza baliabideak egokitzea laguntza-eskarira.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, antolamendu eredu bat hobetu eta integra ditzan ikusmen errehabilitaziorako terapiak (oftalmologia eta optometria dira errehabilitaziorik ez duten espezialitate mediko baka-rrak), optometriako zerbitzu publikoen sendotzearen bitartez. Edo telemedikuntza giltzarri gisa, eta plan bat ere koordinatze aldera Oinarrizko Osasun Laguntza eta eremu soziosanitario ed ospitaleko batzuk, espezialitate eta ezagutza profesional desberdinak dituztenak (familiako medikuntza, oftalmologia, erizaintza, psikologia, gizarte-lana, laguntza-zentroak...).

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, mapa bat presta dezan sortzetiko eta lehen haurtzaroan hartutako ikusmen-gaixotasunen mapa bat presta dezan.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, arreta berezia eman diezaien begi-gaixotasun arraroei, haien prebalentzia txikia dela-eta are babes txikiagoa dutelako.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, lan egin dezan Oinarrizko Osasun Laguntzan, ospitale laguntzan eta gizarte eta komunitate eragileen artean zirkuitu egokituak diseinatzeko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 23an

Foru parlamentariak: Cristina Ibarrola, Patricia Fanlo, Ana Ansa, Domingo Martínez, Mikel Buil y Marisa de Simón



## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu dezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne.**

*EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu dezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne (10-22/MOC-00035).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mendebaldeko Sahara deskolonizazio prozesuak eraso itzela jasan du Espainiako Gobernuak iragarri duenean babesa ematen diola Marokoko Gobernuak lurralde horretarako duen planari. Izan ere Nazio Batuen arabera Espainiak jarraitzen du izaten Marokok 1975etik militarki okupatuta duen antzinako koloniaren potentzia administratzailea.

Marokoko erresumak nazioarteko zuzenbidea betitik urratu duen testuinguruan, Espainiako Gobernuak babesa eman dio Marokoko Gobernuaren planari —zeinak bilatzen duen Mendebaldeko Sahara bereganatzea— aipatu plana “eztabaida hori konpontzeko oinarri serioen, sinesgarrien eta errealisten” moduan aurkeztuz.

Espainiako Gobernuak biraketa esanguratsua egin du, ez dituelako ez errespetatu ez bete ere NBEren ebazpenak, zeinek aitortzen duten Mendebaldeko Sahararen subiranotasun politikoa eta autodeterminazio erreferendum bat eskatzen duten.

Saharako herriari laguntzeko eta elkertasuna adierazteko Europako Konferentziaren 45. Konferentziak, joan den abenduan Las Palmas Kanaria Handikoan bilduta, aurreko 44 konferentziek bezalaxe, jarrera irmoa agertu zuen Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubide besterezin eta preskribaezina baliatzearen alde, sahararrek gaur egun Marokok okupatzen duen beren lurraldean bizitzeko eskubidearekin batera. Jarrera bera mantendu da “Bakea eta Askatasuna Saharan” taldeartekoaren bileretan, Saharako herriaren askatasuna eta autodeterminaziorako eskubidea eskatuz.

Azken finean, Espainiako Gobernuak adierazi duen jarrera nazioarteko legitimitatearen aurkakoa da erabat. Nazioa Batuak, Afrikar Batasuna, Europar Batasuna, Nazioarteko Justizia Gortea, Europako Justizia Auzitegia eta erregio zein kontinente mailako erakunde guztiek ez diote inolako subiranotasunik aitortzen Marokori Mendebaldeko Saharari dagokionez.

Saharako herriak, bere Gobernuak eta Fronte Polisarioak premiazko deia egin diete Espainiako indar politikoei eta Espainiako herri guztiei, Espainiako Gobernuaren aurrean presioa egin dezaten haren jarrera zuzentze aldera, eta bere gain har ditzan jatorriz zituen erantzukizunak, preskribatu gabeak, Nazio Batuen Gutunarekin bat Mendebaldeko Saharan kolonialismoa desagerraraztekoak, bereziki menderatze kolonialaren menpeko herriek autodeterminazio eta independentziarako eskubidea edukitzeari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Saharako gatazkarako konponbide bat sustatu eta lagundu dezan, NBEaren ebazpenetan oinarritutako deskolonizazio prozesuaren esparruan, Saharako herriaren autodeterminaziorako eskubidea barne.



2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, errefusatu dezan Gobernuak Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararako duen autonomiarako planari emandako babesa, ez dituelako betetzen NBEk emandako ebazpenak, Saharako herriaren autodeterminaziorako erreferenduma barne.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Saharako Arabiar Errepublikak Demokratikoa onar dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 23an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan.**

*NAVARRA SUMA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Navarra Suma, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan (10-22/MOC-00036).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Klase pasiboen araubideko irakasleek, zerbitzu berezietako egoeran daudenean, haien lana zein administrazioan garatzen duten, horren mailari dagozkion ordainsariak jasotzen dituzte, eta administrazioak dagozkion kuota kotizatzen du, erretiroaren ondorioetarako. Hezkuntza Departamentuari atxikitako funtzionario bat zerbitzu berezietako egoeran A 1 mailako lanpostua betetzen badu,

hezkuntzako administrazioak A 2 jatorriko lanpostuari dagozkion klase pasiboen kuota ematen du.

251/1993 Foru Dekretuaren 24.2 artikulua goragoko maila batean prestakuntzako zerbitzu berezietan aritzea positibizatzen du.

96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 artikulua arabera gizarte aurreikuspenetarako duen araubideak ez du aldaketarik izanen, eta zerbitzu eginkizunetako aldi jatorrizko lanpostuan zuenarekin segituko du. Ildo beretik, arau beraren 5.2 artikulua ezartzen du.

96/1997 Foru Dekretuan ezartzen dena 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren manuen aurkakoa da. Azken horrek, 32. artikulua lehen apartatuaren b letran, bigarren apartatuaren b letran, adierazten du zerbitzu bereziak ulertu behar direla behar bezala emanda interesdunari dagozkion kidego, eskala, lanpostu, enplegu edo kategorian, leku berean aipatutako egoeretan deklaratu den unean.

Egoera hori kaltegarria izaten ari da zerbitzu berezietako egoeran dauden klase pasiboen irakasle funtzionarioentzat. Agerikoa da erretiroaren ondorioetarako diskriminazioa sortzen dela lanpostu bera burutzen duten beste langile batzuekin.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuaren 4.2 eta 5.2 artikulua ken ditzan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 24an

Foru parlamentariak: Pedro González, María Solana Arana, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez eta Marisa de Simón

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa izateko.**

### *EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu Nafarroan hezkuntza itun bat lortzeko eragile aktiboa izateko (10-22/MOC-00037).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko mozioa aurkezten du Nafarroako Parlamentuan Hezkuntza Ituna lantzeko batzorde berezia sortzeari buruz, Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Hezkuntza itun bat egiteko beharra dagoen ala ez maiz eztabaidatu da Parlamentuan. Pasa den legegintzaldian hainbat mozio aurkeztu ziren gai honen inguruan, eta legegintzaldi honetan ere Nafarroa Suspertu Planaren eztabaida horretan ildo bereko proposamena eztabaidatu genuen.

Izan ere, azken urteotan hezkuntza komunitatearen kezken artean izan dira lege eta arauetan egon diren gorabeherak eta aldaketak, krisi garaian izandako murrizketak, egungo jendartearen eta ikasleen erronkei erantzuteko tresna eta baliabide falta. Eta azkeneko bi urteotan pandemiak berak leherrarazi dizkigu, begien aurrean jarri dizkigu geure hezkuntza sistemaren gabeziak eta erronka nagusiak.

Hortaz, momentu honetan zilegi eta beharrezkoa da halako ekimen bati bide ematea, eztabaida termino estrategikoetan kokatzea eta ahalik eta kontsentsu handiena lortzen saiatzea arlo sozial eta politikoa.

Nafarroako Eskola Kontseilua dugu modu arautuan hezkuntza komunitatearen ordezkartza eta parte hartzerako organo gorena. Gune horretan jarri zen abian orain dela bizpahiru hilabete Hezkuntza Ituna lantzeko prozesua. Ulergarria izan daiteke hortik abiatzea eremu sozialean egin beharreko eztabaida eta proposamenak, baina ikusteke dago bide hori noraino iritsiko den. Eta, edozein kasutan, balizko itun batek aurrera egiteko izango basu, arlo politikoa ere adostasunak bilduta izango da.

Erronka itzelak ditugu aurrean, demografikoak, segregazioa gaintzeari, ekitateari eta kalitateari dagozkionak, berrikuntza pedagogikoari lotutakoak, planifikazio eta gobernantza eremuan... Eta bide honetan, hezkuntza komunitateak egin ditzakeen ekarpenekin batera, Parlamentuak eta bertan ordezkatuta gauden talde parlamentario guztiek badaukagu ekarpenak egiteko eta adostasunak biltzen saiatzerik.

Hori dela eta, honako ebazpen proposamena aurkeztu dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak konpromisoa agertzen du Nafarroako Hezkuntza Ituna lortzeko bidean agente aktibo izateko, talde parlamentario guztiek egoeraren azterketa eta sistema hobetzeko proposamenak egin eta adostasunak biltzen saiatzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuak konpromisoa agertzen du, Nafarroako Eskola Kontseilua egiten ari den prozesuaz harago, hezkuntzako eragile guztiei irekia egonen den prozesu parte-hartzailea abian jartzeko, horretarako batzorde berezi bat abian jarritz.

Iruñean, 2022ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira oposizio eta oposizio-lehiaketa guztietan zehaztua egon dadin azterketen zailtasun gradua, Testen teoria klasikoaren edo/eta Itemari erantzuteko teoriaren bidez, erabili aurretik; eta langileen ordezkariekin negoziata dezaten Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sarbide-probak aldatzea eta eguneratzea.**

#### OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko martxoaren 28an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira oposizio eta oposizio-lehiaketa guztietan zehaztua egon dadin azterketen zailtasun gradua, Testen teoria klasikoaren edo/eta Itemari erantzuteko teoriaren bidez, erabili aurretik; eta langileen ordezkariekin negoziata dezaten Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sarbide-probak aldatzea eta eguneratzea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu:

1. Oposizio eta oposizio-lehiaketa guztietan zehaztua egon dadin azterketen zailtasun gradua, Testen teoria klasikoaren edo/eta Itemari erantzuteko teoriaren bidez, erabili aurretik..

2. Langileen ordezkariekin negoziata dezaten Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen sarbide-probak aldatzea eta eguneratzea. Sarbidean oroimen probak eraldatu edo osatu eginen dira lanpostuan garatu beharreko gaitasun, eginkizun eta trebeziekin lotutako beste irizpide batzuekin” (10-22/MOC-00029).

Iruñean, 2022ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, gazteentzako kultur bonoaren onuradun izanen diren gazteen kopuruari buruzkoa.***CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, gazteentzako kultur bonoaren onuradun izanen diren gazteen kopuruari buruzkoa (10-22/POR-00139).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik Espainiako Gobernuak Gazteentzako kultur bonoa onetsi duela eta beharrezkoa dela gazteei kulturarako sarbidea errazteko tresna erabilgarri bat sortzea:

Nafarroan, zenbat gazte izanen dira gazteentzako kultur bonoaren onuradun?

Iruñean, 2022ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

**Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuan garatzeko dauden arauak buruzkoa.***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuan garatzeko dauden arauak buruzkoa (10-22/POR-00140).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan dira Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko eta Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren oinarritzko arauak ezarriko dituen foru-dekretu proiektua dela-eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak egin beharreko araugintza-garapenak?

Iruñean, 2022ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenean Defentsaren gastuek BPGaren % 2ra igotzeak izan dezakeen eraginari buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenean Defentsaren gastuek BPGaren % 2ra igotzeak izan dezakeen eraginari buruzkoa (10-22/PES-00097).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Espainiako Gobernuak lehendakari Pedro Sánchezek iragarri du asmoa duela defentsako aurrekontua handitzeko, BPGaren ehuneko 2ra iristeko.

Espainiako gastu militarren bilakaera, 2016. urteaz geroztik, honako hau da:

Urtea	Defentsako gastua (M€)	BPGaren ehunekoa	Per capita/ €	Gastu publikoa %
2016	112.672	1,14	273	2,68
2017	114.299	1,23	307	2,99
2018	115.081	1,25	323	3,01
2019	115.386	1,23	326	2,94
2020	115.730	1,40	332	2,66

Espainiak defentsako aurrekontuak BPGaren % 2ra igoko balitu, guztizko gastua iritsiko litzateke 22.741 milioi euro ingurura. Nafarroarentzat defentsako gastuek dakartena da hitzarmen ekonomikotik eratorritako ekarpenaren % 7, gutxi gorabehera.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak egokitzat jotzen al du Espainiak defentsak gastuak handitzea 7.000 milioi euro baino gehiago, BPGaren ehuneko 2ra iristeko. Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezek adierazi duen bezala?

2.- Kalkulatu al du zenbatetan handituko litzatekeen Nafarroak urtero Estatuari egiten dion ekarpen ekonomikoa, hitzarmen ekonomikotik eratorria, defentsako gastuak 15.730 milioi euro ingurutik 22.47ra igaroko balira?

3.- Defentsako gastuetan aurreikusten den igotera hain nabarmenak eraginik izanzen ote du 2019-2024 bosturtekoari dagokion ekarpenaren kalkuluan, dagoeneko Estatuarekin negoziatzen egon beharko baitzen?

Iruñean, 2022ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, eskola aseguruak tratamendu neuropsikiatrikoak eta psikologikoak estaltzeari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, eskola aseguruak tratamendu neuropsikiatrikoak eta psikologikoak estaltzeari buruzkoa (10-22/PES-00098).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintzeko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera

hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Segurantzaren web atarian honakoa ageri da:

“Eskola aseguruaren laguntza medikoan jasota al daude tratamendu neuropsikiatrikoak eta psikologikoak?

Eskola aseguruak estaltzen dituen gaixotasunen artean neuropsikiatria dago, zeinak hartzen baitu beren larritasunagatik ikasketen jarraipenean eragina duten prozesu neuropsikiatrikoen tratamendua, internamendu-araubidean edo araubide anbulatorioan, kanpoan utzita garapen psikologikoaren eta portaeraren eta emozioen nahasmenduak, haurtzaroan eta nerabezaroan hasi ohi direnak”.

Nafarroan, zer kasutan estaltzen ditu eskola aseguruak tratamendu neuropsikiatrikoak eta psikologikoak, beren larritasunagatik ikaslearen ikasketen jarraipenean eragina dutenean? Eta zer neurritan edo zenbat kasutan ari da aplikatzen zerbitzu hori Nafarroan?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero



## **Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan medikuak kontratatzeari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan medikuak kontratatzeari buruzkoa (10-22/PES-00099).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuko zuzendaritza-taldeak egindako bisitan, Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaile Gregorio Achútegui jaunak hauxe esan zuen medikuen kontratazioari buruz: "Baldintzarik onenak eskaintzeko prest gaude... Postu guztiak beteko ditugu, ez produktibitatearekin, pertsonekin baizik".

1.- Zein dira medikuei eskaintzen dizkiezuen baldintzak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kontratatutako izateko?

2.- Nola sustatu edo bultzatuko duzue medikuen kontratazioa, betetzeko zailagoak diren postuetan? Nolabaiteko pizgarri eman al duzue kontratazioarako? Zein pizgarri eta nola?

Zehaztu al dituzue betetzeko zailak diren postuak? Zer postu hartu dituzue betetzeko zailtzat? Zer pizgarri emanen dituzue postu horietarako eta noiztik?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Reina Sofia ospitaleko zerbitzuen zorroan sartu diren prestazio berriei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Reina Sofia ospitaleko zerbitzuen zorroan sartu diren prestazio berriei buruzkoa (10-22/PES-00100).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer prestazio jaso dira Tuterako Reina Sofia Ospitaleko zerbitzuen zorroan eta noiz, 2015etik hasita gaur arte?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Tuterako osasun Barrutiko Dermatologia kanpora ateratzeari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Tuterako osasun Barrutiko Dermatologia kanpora ateratzeari buruzkoa (10-22/PES-00101).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- Osasun Departamentuak zer iritzi du Tuterako Osasun Barrutiko Dermatologia kanpora ateratzeari buruz?

2- Kanpora ateratze horren ebaluaziorik egin al du?

3- Osasun Departamentuak aurreikusita al du Tuterako Osasun Barrutiko Dermatologiako presztazioa kanpora aterata egotearekin jarraitzea? Noiz arte?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Tuterako Barrutiko Erradiodiagnostikoko mediku espezialisten lanpostuei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Tuterako Barrutiko Erradiodiagnostikoko mediku espezialisten lanpostuei buruzkoa (10-22/PES-00102).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- 2021eko ekainetik galdera honi erantzun arte hilabete baino gehiagoz bete gabe egon diren Tuterako Barrutiko Erradiodiagnostikoko mediku espezialisten lanpostu finko, huts edo egiturazkoak, zehaztuta postu bakoitza bete gabe egon den denbora-tartea eta horrek izan duen eragina, arretari begira.

2- 2021eko ekainetik gaur arte Tuterako Barrutiko erradiodiagnostikoko guardia plantillako langileekin bete gabeko egun zehatzak, zehaztuta egun horietako bakoitzean zenbat ordaindu zitzaion guardia egin zuenari (guardiako ordu bakoitzaren prezioa, joan-etorriko denbora ordaindu ote zen eta zenbat, dietak eta bestelakoak).

3.- Zer iritzi du Osasun Departamentuak erradiologoaren lanpostuen lekualdatze-datari buruz eta horrek Reina Sofia Ospitalean izandako eraginari buruz?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Reina sofia Ospitaleko ZIUko erizaintzako burua kargua uzteko eskariari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Reina sofia Ospitaleko ZIUko erizaintzako buruaren kargua uzteko eskariari buruzkoa (10-22/PES-00103).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Reina Sofia Ospitaleko ZIUko erizaintzako buruaren kargu-gabetzea eskatu dute haren ardurapeko langileek. Zergatik?

Departamentuak uste du nahikoa arrazoi bada-goela kargu-gabetze hori eskatzeko? Zer egin dute Reina Sofia Ospitaleko Zuzendaritzak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak eta Osasuneko kontseilariak afera horri dagokionez? Langileekin bilerarik egin al da? Zer ondorio atera dira eta zer egingen duzue?

Iruñean, 2022ko martxoaren 21ean.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordearen eratzeko formalari buruzkoa.**

**ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordearen eratzeko formalari buruzkoa (10-22/PES-00104).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Iazko otsailaren 1ean, sinatzaile den parlamentariak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu zuen (10-21/PES 065) eta bertan aintzat hartzen zen Arartekoak Q20/1122 espedientea dela-eta emandako ebazpena. Ega Bizirik Elkartek Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako keza bat izapidetu zen, Nafarroako Gobernuak kontserbazio

bereziko eremuetan, bereziki Ega eta Urederra ibaietakoan, agertutako pasibotasuna dela-eta.

Horri dagokionez, Nafarroako Arartekoak ondokoa adierazi zuen:

“Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzordeak pixkanaka eratzeko agerturiko borondatea gorabehera, erakundeak uste du, batzorde horien parte-hartzerako eta kontsultarako organo-izaera dela-eta –kudeaketa planaren lurraldeko eragileek osatzen dituzte (martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretuaren 3.1. artikulua) eta aplikatzeko zaien araudian ezarritako eginkizun zehatz batzuekin sortzen dira–, beharrezkoa dela horiek eratzeko kontserbazio bereziko eremuak behar bezala kudeatzeko; izan ere, organo horien baitan dute aukera kasuko eremuko ingurumenaren babesa xedetzat duten entitateek (kexaren aurkezlea kasu) parte hartzeko eta beraiei administrazio eskudunak kasuko kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa planari buruzko kontsultak egiteko.

Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari gomendatzea lehenbailehen eratu ditzan Nafarroan dauden kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzorde guztiak eta, bereziki, keza aurkeztu duen elkarteak aipaturikoa (Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremukoak)”.

Horrenbestez, galdera hauxe egin zen:

“Departamentuaren ustez, noizko egonen da eratua gidaritza batzorde hori? Eta batzordeak eratu gabe dituzten gainerako kontserbazio bereziko eremuetakoak? Zer egutegirekin ari da lanean departamentua batzordeak osatzeko?”

2021eko martxoaren 4an eman zitzaion erantzuna aipatu galderari. Erantzunean halaxe zioen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak:

“Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordeari dagokionez, uste dugu datorren apirileko bigarren hama-bostaldian egin ahalko dela hura eratzeko bilkura”.

Batzordearen izendapenak berretsi dira eta proposatu da parte har dezaten Allin, Ameskoabarrera, Mendaza, Murieta eta Zuñigako udalek, eta

ondoko gizarte eragileek: Estellerriaren landa garapenerako TEDER Partzuergoa, Salvemos el Ega/Ega Bizirik, Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarte, Vadega Ureztatzaileen Elkarte eta Jurrmendiko Mankomunitatea.

Hala ere, orain arte ez da izendapen ofizialik izan, eta aipatu gidaritza batzordea ez da eratu.

Hori guztia ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak noizko aurreikusitako Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea formalki eratzea, ia urtebete pasa baita eratuko zela erantzun zuenetik?

Iruñean, 2022ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Ingeniarien Elkargoari Esako presaren segurtasunari buruzko irizpen bat enkargatzeari buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Ingeniarien Elkargoari Esako presaren segurtasunari buruzko irizpen bat enkargatzeari buruzkoa (10-22/PES-00105).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

2018ko uztailaren 13an, ostiralarekin, Estatuko Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko ekainaren 29ko Ebazpena, zeinaren bidez argitara eman baitzen Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoari kudeaketa-esleipena egiteko hitzarmena, Esako (Nafarroa) presari buruzko irizpen bat egin zezan. Eki-menaren egilea eta sinatzailea Trantsizio

Ekologikorako Ministerioko Uraren zuzendari nagusi Liana Ardiles López andrea zen.

Justifikazio gisa, honela zehazten zen hirugarren puntuari:

«Esako Presari dagokionez, Nafarroako Gobernuak hainbat txosten tekniko idazteko enkargua egin zien geologiaren, geoteknikaren eta Esako presa handitzeko proiektuan, egun burutzen ari den horretan, erabilitako materialen inguruko gaitetako espezialistei. Prestatutako txostenek ezbaian jartzen dute Estatuko Administrazio Orokorrek dagokion obra proiektua idazti zuenean egin zituen azterlanen zorrotasun teknikoa. Inguruabar hori nahasmendua eta kezka sortzen ari da inguruko herrietan. Beraz, onetsitako agirien zorrotasun teknikoa berretsi behar da. Sortu den ziurgabetasun eta mesfidantza egoera horren aurrean, Estatuko Administrazio Orokorrek, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren bidez, egoki ikusten du Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari eskatzea, zuzenbide administratiboko korporazio den aldetik, aldera ditzan dauden azterlan eta txostenak eta zehaztuta utz dezan Estatuko Administrazio Orokorrek prestatutako txostenen baliagarritasuna eta zuzentasuna eta, egoki iritziz gero, ezar dezan beste txosten edo gogoeta tekniko batzuk, beste administrazio publiko batek egi-

nak, gehitzeko beharra. Lanbide elkargoarekiko ezar daitekeen izaera independentea da hitzarmen hau sinatzeko egokitasuna eta beharra xedatzen duena. Jarduera tekniko hori egin behar du Esako presa handitzearekin lotutako gaiak, azpiegitura hidraulikoa den heinean, eskatzen duen gaitasun teknikoa duen organo edo entitate batek eta, aldi berean, ukitutako Administrazio Publikoekiko entitate independente batek, alegia, Estatuko Administrazio Orokorrekiko, Esako presa handitzeko proiektua idatzi duena eta proiektuko obrak kontratatzeako organoa baita, eta Nafarroako Foru Komunitatearekiko, egindakoa zalantzan jartzen baitu».

Agindutakoaren kostuari eta epeei buruz honako hau ezartzen zen:

«2018. urtea: 72.600,00 € (BEZ barne): azterlana eta eskura dagoen informazioaren analisia egitea eta hasierako irizpena aurkeztea Esako presa handitzeko proiektuaren idazketarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako txostenei buruz.

2019. urtea: 48.400,00 € (BEZa barne): azterlana eta hasierako irizpena Nafarroako Gobernuko Departamentuarterko Batzordeak 2016ko ekainaren 21ean prestatutako txostenari buruz eta, halaber, hasierako irizpena Nafarroako Gobernuak 2017ko irailaren 6an hartutako Erabakian oinarrituta eman daitezkeen txostenei buruz, Esako presa handitzeko obren segurtasunaren alderdiei eta irizpenaren beharrari begira.

2020. urtea: 60.500,00 € (BEZa barne): amaierako irizpena Esako presa handitzeko proiektuko obren segurtasunari buruz».

2018ko maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean zentsura mozio bat izan zen Diputatuen Kongresuan, Mariano Rajoyren bigarren gobernuaren erortzea ekarri zuena. Ekainaren 7an PSOEk Pedro Sánchezek gobernuaren eratu zuen eta Teresa Ribera izendatu zuen Trantsizio ekologikorako ministro. Ministro horrek, urte bereko ekainaren 22an Liana Sandra Ardiles López Uraren zuzendari nagusiaren kargutik kendu eta Manuel Menéndez Prieto izendatu zuen.

Testuinguru horretan izan zen kargutik kendutakoaren azken ekintzetako bat, jakina, protagonismo osoa jaso zuena. Estatuko Aldizkari Ofizialean agindutakoaren hitzarmena argitaratu zenean argi geratu zen.

Gobernu berriak gaiari buruz zuen jarrera dela eta zalantzarik geratuz gero, orain Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministro

berriak baliagarritasuna eman zion aginduari, 2020ko urriaren 14an, Diputatuen Kongresuan EAJri erantzutean, azpimarratu baitzuen «Ministerioaren konpromisoa, beti ere kontrastatutako txosten teknikoaren gidaritzarekin. Agian hau dugu azken 30 urteotako obra zainduena», esan zuen, gogora ekarriz 2018ko uztailaren 13an Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargoari enkargatu ziola «irizpen bat prestatzea, obraren segurtasunaren gainean eskura dagoen informazio guztia aztertuko duena. Ez dugu urrats bat bere ere eginen orain gauden gainetik, haiekin kontrastatu gabe erabat segurua dela bide horretatik jarraitzea», amaitu zuen.

2020ko azaroko elkarrizketa telematikoa batean, Uraren Kultura Berria Fundazioak Esako mazelen segurtasunari buruz egindako txostenaren aurkezpen ofiziala egitean, Uraren zuzendari nagusi berri Teodoro Estrelak baieztatu zuen agindutako txostena emanen zela 2021eko lehen hiruhilekoaren amaierarako.

Geroago, 2021eko urtarrilaren 27an Caries Mulet García senatoriaren galdera bati erantzutean, honako hau baieztatu zuen:

«Agindutakoaren indarraldia, gehienez ere, bi urtekoa zen, 2018ko uztailaren 13an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik. Hala ere, jardueren bilakaerak hala eskatu duelako, aldean erabaki espresuaren bidez epe hori zabaldu da 2021eko erdira arte».

2022ko martxoan gaude, zuzendari nagusiak emandako epetik hamaika hilabete igarota, eta zortzi hilabete Legebiltzarreko erantzunean aipatzen zen datatik. Ez dakigu zein diren txostena emateko atzerapenen arrazoiak, ezta dagoeneko txostena emanda ote dagoen ere.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1. Nafarroako Gobernuak ba al daki, hala adierazi zaiolako, zergatik izan den urtebete baino gehiagoko atzerapena Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargoari egindako enkarguan itundutako epean, Esako presa handitzeko segurtasunaren inguruko irizpen bat prestatzekoan?

2. Trantsizio Ekologikorako Ministerioak eman al dio Nafarroako Gobernuari Esako presa handitzeko proiektuko obren segurtasunari buruzko segurtasunaren gaineko amaierako irizpena, kudeaketako aginduan jasotzen zena? Baiezkoan, noiz eman zitzaion?

Iruñean, 2022ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique





---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

## **Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa.**

### *HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK EZETSI DU*

Legebiltzarreko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2022ko martxoaren 22an egindako bileran, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa ezetsi zuen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 202. artikuluren 6. apartatuaren c) letrarekin bat. Plan hori Nafarroako Gobernuak aurkeztu zuen eta 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/CDP-00011).

Iruñean, 2022ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



